



Manolito Rasiarán...2015

**BORROKAN BITU
BUTIKUNAK BATU**

**MANITZADEN FIAN
LANAREN LEHIA**

GREBA OROKORRERAKO BIDEAN

LANAREN KONFEDERAKUNDE NAGUSIA

www.cgt-lkn.org

www.rojoynegro.info



Maiazaren Lehena

BORROKAK BATU

GREBA OROKORRERAKO BIDEAN

Maiazaren Lehen honetan, langile-klasea, biztanle gehienak ordezkatzeko duena, hau da, **egundoko iruzur sozialaren indarkeria sufritzen ari garenok, berriro ere kaleetara aterako gara** gure haserrea, gure talde-protesta azaltzeko, eta, baita **gizarte eredu hori aldatzeko gure ausardia eta borondatea erakusteko ere**, bertan finantza boterek eta gobernuek eredu horretan erabat engainatuta baikaituzte.

Miseria unibertsalizatu egin dute, esklabo izatea, askatasunik ez izatea, eta gazte belaunaldi batzuek, migratzaileak, emakumeak, adinekoak, enplegurik eta prestaziorik gabe daudenak eta erdi esklabo bihurtu dituzten langileak etorkizunerako aukerarik gabe utzi dituzte. **Denetatik kendu eta lapurtu digute**, eskubideak dituzten enpleguak, zerbitzu publikoak, osasun eta hezkuntza zerbitzuak, garraio publikoak, komunikabideak, energia iturriak (ura eta elektrizitatea, etxebizitzak, unibertsitatean jardun ahal izatea, kulturarako eta burges-justiziarako aukera, dependentzia duten pertsonak -adinekoak, gaixoak eta haurrak- zaintzea. **Erabakitzeko eta protesta egiteko eskubidea lapurtu digute**, manifestatzeko, banaka nahiz taldeka adierazpenak egiteko. **Duintasunez bizi gaitzkeen pertsona libreak izateko eskubidea lapurtu digute**.

Ustelkeria gordin-gordinena jaun eta jabe da eta instituzio guztietara zabaldu da, hau da, instituzio politiko, enpresarial, judizial eta polizial guztietara, eta, are gehiago, tamalgarria da **erregimenaren aldeko sindikatueta ere iritsi izana** (Andaluziako EREak, Bankiako kreditu-txartel beltzak, sindikatueta kargudunei emandako gainsoldata, etab).

Eta, gutxi balitz, gizarteari mozala jartzen saiatzen dira inortxo ere kexatu ez dadin, eta horrela konforme egon dadin, izua eta beldurra inposatzen dute errepresio polizialaren eta ekonomikoaren bidez, errugabeak kartzelatu dituzte protesta baketsuetan parte-hartze hutsagatik. Eskuak eta oinak lotzen ari zaizkigu, frankismoaren garai gogorretan bezala, inolako eskrupulurik eta planteamendu moralik gabe.

Horiek guztiak ezin ditugu onartu. **Kaleetan mobilizatzen jarraitu behar dugu, hauteskundeak daudenean eta ez daudenean, borrokak batzeko eta solidaritatea eta elkarrekiko elkartasuna gauzatzeko**, eta erakutsi behar diegu ez garelako beldur, duintasuna soberan dugula klase gisa borrokan jarduteko, eta ez diegula etorkizuna lapurtzen utziko, ezta gure seme-alabena ere.

Askatasuna ukatzen duten inposatutako lege guztiak indargabetzera behartuko ditugu, lan erreformak, mozal-legeak, TTIPren negoziatioarekin amaitu behar dugu, ZORRA diru publikoarekin ordaintzeari uko egin behar diegu, ez legezkoa eta bidegabekeria baita, lapurtutako zerbitzu publikoak berreskuratu behar ditugu, etxe-kaleratzeekin amaitzea lortu behar dugu, guztiontzako OINARRIZKO ERRENTA eskuratu, eta, azken batean, **lana eta ondasunak guztion artean banatu behar ditugu**. Hori guztia gure belaunaldiari egokitu zaio, guretzat izango da, eta, horrela izan ezean, **datozen belaunaldietarako HONDAMENDI huts handi bat besterik ez litzatekeelako izango**.

BORROKA DA BIDE BAKARRA

MAIAZAREN LEHENA, GORA LANGILE KLASEA!